

2023ko otsailaren 6an

**UDALBILTZA PARTZUERGOAREN ETA LARRABETZUKO UDALAREN ARTEKO
LANKIDETZA HITZARMENA:**

BILDURIK

Alde batetik JABI ASURMENDI SAINZ jauna, 14264161-K NA zenbakiduna, UDALBILTZA Partzuergoaren izenean, hala baitagokio lehendakaria den heinean eta kontutan hartuta Partzuergoaren Estatutuen 30 eta 31 artikuluetan xedatutakoa.

Bestetik, IÑIGO GAZTELU BILBAO jauna, Larrabetzuko Udaleko alkatea, 30.609.485 G NAN zenbakiduna, udal horren ordezkari eta izenean.

Aldeak beren karguei dagozkien eskumenak direla medio agertu dira, eta hitzarmen hau izenpetzeko ahalmena aitortzen diote elkarri, eta horren ondorioz

ADIERAZTEN DUTE

-|-

Udalbiltza Partzuergoa 2001. urtean sortu zen erakunde publikoa da. Nortasun juridiko propioa eta erabateko ahalmena du bere helburuak lortzeko. Helburu horien artean, Partzuergoak, *Geuretik Sortuak* proiektuaren bigarren edizioa abiatuko du 2023. urtean, Euskal Herriko 38 herritan, 22 herri multzotan antolatuta.

Euskal Herrian arazo nazionala dago euskal kultura eta arteari dagokionez. Arazo horri herri bezala aurre egiteko Udalbiltza bezalako egitura nazional bat ezinbestekoa da. Gainera, zeregin horri tokian tokikotasunetik ekin behar zaio ezinbestean, eta horrela jasotzen da proiektuaren definizioan. Izan ere, Euskal Herri osoko hautetsiak eta udalak saretzen dituen proiektua da *Geuretik Sortuak*.

-II-

Proposamen berritzaile horrekin, euskara eta kontakizuna ardatz hartuta, partzuergoak eta udalek euskal herriak kulturalki saretuko dituzte. Horretarako, lau arte diziplinatan oinarrituko da proiektua: literatura, komikigintza, antzerkia eta zinemagintza.

Jada, sormen lanak garatzeko beharrezkoak diren dirulaguntzak emateko deialdia atera du Partzuergoak, 2022ko urriaren 26ko datarekin. Beka deialdi horrek, proiektuak eskatzen duen kalitatea eta moldagarritasuna bermatzen ditu. Halaber, 22 sortzaile eta kulturgile hautatu dira parekidetasuna eta arlo aniztasuna kontuan hartuta.

Euskaraz izango diren artelanak herri bakoitzaren idiosinkrasiari lotuta egongo dira. Hori bermatu ahal izateko, kulturgileek beraiena ez den herrian hiru asteko egonaldiak egingo dituzte, hura ezagutu eta hasierako proposamena esleitutako tokira egokitzeko.

2024an zehar artelanen argitalpena, hedapena eta komertzializazioa egingo da.

-III-

LARRABETZUKO UDALA, bere eskumenak betez, hainbat sustapen politika ari da lantzen kultura eta euskararen inguruan. Testuinguru horretan bere aurrekontuetan "UDALBILTZA KULTUR EKINTZA" izeneko aurrekontu partida aurreikusi du.

-IV-

Toki-erakundeek euren artean koordinatu behar dituzte euren eskumenak,

eta bereziki herri-administrazioekin, bai tokiko jarduerak nahiz zerbitzuak toki erakunde bakoitzaren interesen ginetikoak direnean, bai herri-administrazioen interesak nabarmen ukitu edo baldintzatzen dituztenean, zein herri administrazio horien interesekin bat datozenean edo osagarriak direnean.

ERABAKI DUTE

Honako Lankidetzaren Hitzarmena izenpetzea, aurrez ezarritako esparruaren barruan konpromiso hauek betetzeko, ondorengo klausuletan oinarrituta:

KLAUSULAK

LEHENA.- XEDEA

Hitzarmen honen xedea da lankidetzaren esparru bat ezartzea Udaltzaren Partzuergoaren eta Larrabetzuko Udalaren artean *Geuretik Sortuak* kultura proiektua garatzeko.

BIGARRENA.- HITZARMENAREN IZAERA

Lankidetzaren hitzarmen hau Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 legearen 47. artikulutik aurrerakoetan arautzen denaren arabera da.

Hitzarmen hau sinatzen duten bi entitate publikoek haien arteko harremanetan Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 legearen 55. artikuluan xedatutakoa beteko dute.

HIRUGARRENA.- UDALAREN BETEBEHARRAK:

Proiektua finantzatzeko Udalak 13.653,00 euroko ekarpena konprometituko du guztira. Zenbateko hori, bi urtean ordainduko du:

- Lehen urtean sormenari dagokion zatia, hitzarmen hau sinatzerakoan eta beti 2023ko maiatzaren 31 baino lehen. Ekarpenaren lehenengo zati hori 2023ko aurrekontuan agertzen den 334-42101 kontu sailaren kargura egingo da, 5.753,00 euro.

- Bigarren urtean aukeratutako ziklo zatiaren arabera, hots, hautatutako emanaldi kopuruari dagokiona (aurkezpen bat, bi antzezlan, film laburren proiektzioa eta erakusketa). Bigarren ordainketa hau, 2024ko maiatzaren 31 baino lehen egin behar da. Ekarpenaren bigarren zati hori 2024ko aurrekontuan dagokion kontu sailaren kargura egingo da, 7.900,00 euro. Obra edo ekimen gehigarriren bat kontratatuz gero, azken zifra honek aldaketa jasoko luke.

Ekarpen honen bitartez Udalbiltza Partzuergoak aurrera eramango duen *Geuretik Sortuak* kultura proiektua finantzatuko da, betiere, estatutuetan zehaztutako helburuen baitan. Beraz, ekarpen honek izaera finalista izango du.

Horrez gain, aurrez aipatu diren sormen egonaldietan, Udalak dituen gaitasunen arabera eta bere esku dagoen heinean, kulturgileei ostaturak eta lan egiteko lekua bermatuko dizkie. Horrekin batera, udalak egonaldietan beka onuradunei harrera eta harremanetarako arduradun bat egon dadin bermatuko du, kultura proiektu honetako udaleko ordezkaria izango dena eta eguneroko edozein arazo edota beharretarako eskuragarri egon daitekeena.

Arduradun honek Udalbiltza Partzuergoko kultur teknikariari lagunduko dio egonaldiaren koordinazioan; hala nola sortzaileentzako otorduetarako lekua gomendatzen (hau Udalbiltzak ordainduko du), sortzaileen lan-lekua bermatzen, edota uneoro edozein aldaketa edota arazoren berri ematen.

Ekarpen hau, azaroaren 17ko diru-laguntzei buruzko 38/2003 lege orokorraren 2.2 artikuluan arautzen denetakoa da eta hortaz, lege horren aplikaziotik

at dago.

LAUGARRENA.- PARTZUERGOAREN BETEBEHARRAK:

Partzuergoak sormen, ekoizpen eta hedapen diru-laguntzen deialdiak eta kudeaketa bere gain hartuko du. Ildo horri jarraiki, Udalarri proiektuaren nondik norakoan gainean jakinaraziko zaio, Udalbiltzako kultura eta komunikazio arduradunaren eta udaleko ordezkariaren harreman zuzenaren bitartez, bereziki esleipen faserako beharrezkoa izango den udalerriaren kultura baliabideen azterketa eta diagnostiko bat egin ahal izateko.

Udalerri ezberdinetan kulturagileek sortutako artelanen argitalpena, hedapena eta komertzializazioa egingo du Udalbiltzak. Gainera, 2024an zehar *Geuretik Sortuak* ekimenaren oinarri den aurkezpenen zirkuitua bermatuko du Udalbiltza partzuergoak Larrabetzu udalerrian eta proiektuan parte hartzen duten beste udalerrietan, horretarako beharrezkoak izango diren garraio eta aurkezpen gastuak finantzatzuz.

Halaber, diru ekarpena aipaturiko xedera bideratuko du; hau da *Geuretik Sortuak* proiektu kulturala finantzatzeko. Hori egiaztatzeko, 2024ko urtarrilaren 31 baino lehen memoria bat bidaliko du Udalera 2023an garatutako ekimenen berri emanez. Bigarren urtean, 2025eko urtarrilaren 31 baino lehen memoria bat bidaliko du udalera 2024an garatutako ekimenen berri emanez. Era berean, partzuergoak memoria ekonomikoa ere aurkeztu beharko du, ondorengoak jasoko dituelarik:

- a) Diruz lagundutako jarduerari dagozkien gastuen zerrenda sailkatua (hornitzailea eta dokumentua, zenbatekoa, jaulkipen data eta, hala badagokio, ordainketa data identifikatuta).
- b) Diruz lagundutako jarduera finantzatzeko izan diren beste diru sarrera edo laguntzak, zenbatekoa eta jatorria barne, xehetasunez jasotzen dituen zerrenda.

Azkenik, Partzuergoak udal kontu-hartzaitetza zerbitzuarekin elkarlanerako prestasuna behar du izan gastuari buruzko frogagiriren bat edo informazio gehiago eskatzen bazaio.

Udalbiltza Partzuergoak, udalak hala eskatzen badio, egindako jardueren aurkezpen publikoa egingo du, udalerriko herritar guztiei irekita. Honen helburua, bertako herritarrek bere jardueraren berri izan eta tokiko garapen estrategia ezberdinen inguruan ezagutzak handitzea izango da.

BOSGARRENA.- BESTE DIRU-EKARPEN BATZUEKIKO BATERAGARRITASUNA:

Hitzarmen honek xedetzat duen diru-ekarpena bateragarria da beste edozein administrazio edo erakunde publiko nahiz pribatuk eman lezakeen helburu bereko subentzio, laguntza, diru sarrera edo baliabideekin.

SEIGARRENA.- AMAITUTZAT EMATEA:

Hartutako konpromisoak alde batek ez baditu betetzen, beste aldeak ahalmena izango du hitzarmena zorrotz betetzea eskatzeko edo hitzarmena amaitutzat ematea eskatzeko eta, behar izanez gero, ekarpen ekonomikoa galdu edo zati batean edo oso-osorik itzultzea eskatzeko.

ZAZPIGARRENA.- IRAUPENA:

Hitzarmen hau bi aldeek izenpetzen dutenean sartuko da indarrean eta hala jarraituko du bere xedea bete edo amaitutzat eman arte, 2025ko urtarrilaren 31 baino lehen bukatu behar duelarik nolana ere.

Aurreko guztiarekin ados daudela erakusteko, eta horrela jasota gera dadin eta bidezko ondorioak sor ditzan, bi aldeek hitzarmena izenpetzen dute jatorrizko bi aleetan, goian aipatutako lekuan eta egunean.

UDALBILTZA PARTZUERGOA

Izptua: Jabi Asurmendi Sainz

LARRABETZUKO UDALA

Izptua: Iñigo Gaztelu Bilbao